

BERANGO

gaur

67 ZBKIA 2017KO ABENDUA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
Guztien konpromisoa
Un compromiso común
21

berangokoudala@berango.org



URIBE KOSTAKO HERRIEK INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ZUHAITZ SINBOLIKOA LANDATU DUTE

INOLA ELKARTEAREN EGOITZAREN ZELAIAN DAGO, HOSTOEN
SINBOLOA DIREN ETA MEZUZ BETETA DAUDEN BEGIZTA MOREEKIN

Uribe Kostako mankomunitatearenak diren zazpi herriek Berdintasunaren aldeko zuhaitz bati bizia eman diote. Berango, Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz, Lemoiz eta Urdulizek, lehenengo eta behin adar bat jarri zuten beraien auzotarren esku leku publiko batean, nahi zutenek mezuak begizta moretean eskegitzeko, hostoen modura. Herri bakoitzetik eramandako adar horien bat-egiteak elementu sinbolikoa eta erreibindakaziokoa bezala erabili egin da eta Inola elkar-tearen egoitzaren kanpoaldean bisita daiteke. Hemen Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi nagusia burutu zen. Anda

Aldana artistaren eskultura honek, aurtengo "Maitatuak izateko eskubidea. Eskubideekin maite" gaia gogorarazten du.

Beraz Uribe Kostako Emakumeen Topaketak berriro izan zituen sinbolismo eta hunkiberatasun karga garrantzitsua, herri bakoitzeko ordezkari politikoen ohiko presentziarekin. Berangoko alkatea den Anabel Landak eta Urdulizekoa den Javier Bilbaok, Udal guztietan onartu den agiria irakurri zuten. "Berdintasunezko, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko, gizartearen erakuntzarekin gure konpromiso instituzionalaren esparruan, biktimen ordainaren eskubidea gehitzeko erronka onartu behar dugu, emakumeen kontrako bortizkeriari aurre

egiteko". "Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Jutzitza eta erreparazioa" ere funtsezkoak dira, azpimarratu zuten bezala.

"Alderdi politiko eta erakunde guztien akordio bidezko erantzunkizuna" ere gogoratu zuten, "gure gizartean emakumeen kontrako indarkeriaren ezabapenerantz aurrera egiteko eta beharrezkoak diren baliabide guztiak izateko". Urdulizeko alkateak nabarmendu zuen bezala, toki-administrazio guztiek "egiturazko neurrien hedapenerekin eta hobekuntzarekin jarraitzeko konpromisoa" dute, orban honekin bukatzeko, "emakumeen eta talde feministen laguntzarekin eta gizarte zibilaren eta herri-tarren laguntzarekin". Azaroaren 25a ospatzeko antolatutako ekitaldi guztiei amaiera emateko, eta egintza honen edizio bakoitzean bezala, Berangoko emakumeen elkar-tearen kideak ere egon ziren.



EKOGUNE IKASTAROAK



Abenduaren 17ra arte bigarren lauhilekoaren Ekogune ikastaroetan izena emateko epea zabalik egongo da. Uribe Kostako Mankomunitatearen Jasangarritasun Sailak bultzatutako kurtsoak dira. Hauek dira eskaintzen diren ikastaroak: “Hasiberrirentzako jostintza” – hau euskaraz irakatsiko da- “Kartoi-lanketako oinarritzako ikastaroa”, “Iraunkortasuna eta gantxiloa”, “Hasitakoentzako jostintza”, “Birziklatu, berreskuratu, berreskuzatu”, “Nola birziklatu erabiltzen ez den arropa” eta “Altzariak zaharberritzea”. Kurtso hauei buruzko informazio gehiago nahi dutenek http://www.uribekosta.eu/es-ES/Sostenibilidad/Paginas/Eko_Cursos.aspx web orrialdea kontsulta dezakete.



HAURTZAROAREN EGUN UNIBERTSALA

Berangok Haurtzaroaren Eguna Unibertsala ospatu zuen, beraien kulturako, erlijioako, jatorriko, hizkuntzako edo sexu arazoetatik era desberdinean ez tratatzeko eskubidea dutela gogoratzeko. Zainketa medikoak izateko eta drogarik gabeko ohitura osasungarriak garatzeko eskubidea dute. Era berean, doako eta kalitateko heziketa jasotzeko eskubidea dute ere, mundu guztian giza eskubideak betetzeaz arduratutako herritarrak bihurtzeko. Halaber, ezgaitasunaren bat duten adingabeek bizitza osoaz gozatzeko zainketa eta heziketa bereziak jasotzeko eskubidea dute. Hain zuzen, Haurtzaroaren Eguna Unibertsalak beraien eskubideen bistaratzeaz



gain, adingabeen artean aktibitateak burutzea ere ekarri du Berangon. Proposatutako aktibitateak, neska-mutilen hamar urtetik 14ra-ohitura onak bultzatzeko edo adiskidetasuna eta elkarrizketaren ahalmena bezalako baloreak indartzeko, besteak beste, burutuko dira.

“Adierazpen honekin Udalaren aldetik udal-kompetentzien barruan konpromisoa bilatzen da, Haurrearen Eskubide hauek beteko direla ziurtatzeko, haurrearen politikagintza eta honen garapena bultzatuz, justuagoa eta berdintasunezkoagoa den gizarte baterantz aurrera egiten”, azaldu zuen Berangoko Udaleko Ongizate Saileko arduraduna den Nerea Jimenezek.

Agenda Berango Antzokia

Diciembre 2017ko Abendua

- abenduak 9 // 19.00etan
“Animales fantásticos y dónde encontrarlos”
Zine emanaldia, 10 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan.
- abenduak 10 // 18.00etan
“VAIANA”
Animazio zinea umeentzat. Gaztelaniaz. Doan.
- abenduak 15 // 20.00etan

ABESBATZA
Otxandategi Abestaldearen emanaldia. Doan.

- abenduak 16 // 19.00etan
“STARS WARS. ROGUE ONE”
Zine emanaldia 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan.
- abenduak 17 // 18.00etan
“NOR DA OLENTZERO?”
Pailazo emanaldia umeentzat. Euskaraz. Doan.

• abenduak 22 // 20.00etan
EUSKAL DANTZAK
Simon Otxandategi Dantza Taldearen emanaldia. Doan.

- abenduak 23 // 19.00etan
VII ANIVERSARIO DEL ANTZOKI
Nagusien Abesbatza eta Saloi Dantzak, Musika Eskola eta Kultur Etxeko Dantza Modernoa. Doan.
- abenduak 26 // 18.00etan

“ERROMIRRIA” PAILAZO emanaldia umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 1 €.

- abenduak 28 // 18.00etan
“KALEAN OTSO ETXEAN USO”
Antzerki emanaldia umeentzat. Euskaraz. Doan.
- abenduak 29 // 19.00etan
“Maria Nikolayeva” Errusiako Ballet Taldea
BALLET emanaldia adin guz-



tiertzat. Sarrera: 3 €.

- abenduak 30 // 19.00etan
“LA VERDADERA HISTORIA DEL MUNDO”
Ikuskizun barregarria helduentzat. Gaztelaniaz. Doan.

Para recibir la agenda por e-mail:
euskara@berango.org



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Cehigarri honek
Bizkaiko Foru
Aldundia
laguntza jaso du



GABONETAKO KOLONIEK TAILER DIBERTIGARRIAK ETA IRTEERAK SARTZEN DITUZTE



GUPERA ETA TXIMIPARKERA IRTEERAK ETA GAZTEENTZAKO SERANTESERA MARTXA BAT EGINGO DIRA

Hamarnaka umek eta gaztek Gabonetako Kolonietan parte hartuko dute, urtero oso harrera ona dutenak. Berangoko Udaleko Kultur sailak aktibitate dibertigarriak proposatzen ditu: tailerrak eta jaiak, besteak beste,

parte hartzen dutenak dibertitzea bilatzen dutenak eta, honez gain, umek ikastetxeetan oporrak dituzten egun hauetan familia eta lana bateratzea ere erraztu nahi dute.

Programa barruan, hiru txango antolatu dira. Horieta bat Gabo-

netako Umeentzako Parkera, urtarriaren 3an, 2000 eta 2011 urteen bitartean jaiotakoentzat. Hurrengo egunean 9 eta 17 urte bitartekoak irristaketa egitera eta 3 eta 8 urte bitartekoak Tximiparkera joango dira. 2000 eta 2004 urteen bitartean jaiotako gazteentzat, Gaztelekuak aktibitate entretenigarriak eta desberdinak bultzatzen ditu, hala nola, "Scaperoom", GUP, Lasergunera edo irristaketa egitera irteerak eta Serantesera martxa bat, besteak beste.



BIGARREN ESKUKO ELKARTASUN AZOKAK CARITAS ELKARTERAKO BILDUKO DU DIRUA

Bildutakoa baliabide gutxiko Berangoko familiei zuzenduko da

Bigarren Eskuko Elkartasun Azokak Berangoko Caritas elkarterako bilduko du dirua, baliabide gutxi dituzten herriko familiei zuzentzeko asmoarekin. Ekitaldia abenduaren 10ean burutuko da -11:00etatik 15:30era- Nagusien Etxearen ondoan dagoen plazan, baina frontoira mugituko da euria egitekotan. Azokan helburu solidarioa duten eskuz egindako produktuak ere egongo dira.

Izena emateko epea azaroaren 27tik 30era arte zabalik egongo da. Saltzen diren produktu guztiak biga-

rren eskukoak izan beharko dira, ezin izango dira janaria, edaria edo animaliak saldu. Parte hartzaile bakoitza garraioaz, saltokiaren muntaiaz, aurkeztutako artikuluak batzeaz eta betetako lekuaren garbiketaz arduratuko da. Esparrura publikoari zabaldu baino ordu bat lehenago sartu ahal izango da, saltokia prestatu ahal izateko.

Lekua mugatua da, eta parte hartzeko orduan Berangon erroldatutako pertsonen lehentasuna izango dute.

PERTSONA ZAINTZAILEEI I. OMENALDIA



Urdulizeko Kultur Etxean ospatutako pertsona zaintzaileei zuzendutako I. omenaldiak arrakasta handia lortu zuen. Gizartearen esker onak 38 pertsona hauek egiten duten lan garrantzitsua nabarmentzeko eta ezagutarazteko balio izan zuen. Pertsona hauek beraien senitartekoak zaintzeko emate eskuzabala eta neketsua egin behar dute askotan. Uribe Kostako Mankomunitateko Ongizate Sozialeko sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuten ekitaldi hunkigarri hau.

Guztien dantzagatik

Berangon euskal-dantzen 75 etengabeko urteak ospatzeko lehenengo pausua eman da jada.

Talde desberdinek zazpi hamarkada baino gehiagotan euskal folklorea bultzatu dute eta gaur egungo elkarateak, Simon de Otxandategik, pilotalekuaren edukiera bete zuen ekitaldi bat egin zuen. Ekimenaren helburua zazpi hamarkada hauetan dantza egin duten dantzariak biltzea izan zen, ospakizun kolektiboaren bidez. Urteurrena dela eta maiatzaren 6an editatzea eta kaleratzea aurreikusten den "Berango: 75 años de danzas" liburua argitaratuko da, egun horretan egongo den Artisautza Azokarekin bat egiteko. Argitalpenak dantzarien behin-behineko zerrendan agertzen diren 700 pertsona baino gehiagoren izen-abizenak sartuko ditu. Aurrez ikusitako ekitaldien egutegiak bideoklip baten grabazioa ere

sartzen du otsailaren 25ean. Baina Simon de Otxandategi taldearen zuzendaria den Iñaki Gonzalezek azaldu zuen arabera, "Berangoko dantzen 75 etengabeko urteen ospakizuna 2018ko uztailean lehenengo lau asteburuetan burutuko da". Ekitaldiak Sabino Arana kalean egingo dira lehenengo hiru asteetan, eta azken astean Lantzarteko zelaietan izango dira. Azken honetan Nazioarteko Dantza Jaialdiaren ospakizuna dela eta, karpa erraldoia kokatuta egongo da, Berango bisitatuکو duten mila pertsona baino gehiago bilduko direlarik. Batera dantzatu ahal izateko, dantzariak apirilaren 11n hasiko dituzte entseguak. Data hori baino lehen, eta dirua biltzeko asmoz, afariak antolatuko dira -20 euroko prezioan- taldearen entsegu lokaletan, otsailaren eta martxoaren asteburuetan. Kasu honetan tiketa aldeztatik aurretik eskuratzea beharrezkoa da.



Por un baile común

En Berango ya se ha dado el primer paso para conmemorar 75 años de euskal-dantzak ininterrumpidos. Diferentes grupos han impulsado el folklore vasco durante más de siete décadas y la agrupación actual, Simon de Otxandategi, celebró un acto con el que se llenó el aforo del frontón para llevar adelante una celebración colectiva que reúne a todos/as los y las dantzaris que han bailado durante más de estas siete décadas.

Para la ocasión se editará un libro titulado "Berango: 75 años de danzas", que se prevé editar y poner a la venta el 6 de mayo, día en que se celebra la Feria de Artesanía. La publicación incluirá los nombres y apellidos de esas más de 700 personas que figuran en el listado provisional de dantzaris. El calendario de actos previstos incluye también la grabación de un videoclip el 25 de febrero.

Pero como apuntó el director de Simon de Otxandategi, Iñaki González, "la celebración de esta efeméride por los 75 años ininterrumpidos de bailes en Berango, se va a llevar a cabo durante los cuatro primeros fines de semana del mes de julio de 2018". Los actos tendrán lugar en la calle Sabino Arana durante las tres primeras semanas, mientras que la última será en las campas de Lantzarte, donde estará colocada la karpa gigante con motivo de la celebración del Festival Internacional de Danzas, que congregará a más de mil personas que visitarán Berango. Para conseguir bailar juntos, los y las dantzaris empezarán los ensayos el 11 de abril. Anteriormente, y con la finalidad de recaudar fondos, se darán cenas a la carta -al precio de 20 euros- en los locales de ensayo del grupo, los fines de semana de febrero y marzo. En este caso es preciso retirar el ticket con antelación.

